



TEXTO Y FOTOS



Arantza Jausoro Marugan
(Gasteiz, 1967)

EMFren presidente ohia
eta mendi-lasterketako
epailea

TEXTO Y FOTOS



Iñaki Barona Urbina
(Gasteiz, 1967)

IKA euskaltegiko irakas-
lea eta bide-teknikaria.



Isuskitzako bunkerra eta lubakiak. INDALECIO OJANGUREN

Urteak dira ideia hau buruan genuela, eta azalerratu egiten zen, edozein menditan egonik, gerrako arrastoa sumatzen genuen bakoitzean. Mendizale guztioi gertatu bezala, mendi bueltetan sarri egin dugu topo gerraren aztarnekina –lubakiak, bonba-zuloak, bunkerrak, oroitarriak...–, eta lagunaren artean maiz aipatu dugu interesgarria litzatekeela arrasto horiek guztiak ibilbide batez lotzea. Horretarako, Legutioko ofentsiba-garaiko frontea hartu genuen abiapuntu, eta sei etapako ibilbidea diseinatu genuen.

IRRINTZI BAT ENTZUN DA...

GERRA ZIBILA: ARABAKO FRONTEAN BARNA

lñabarragako goi-larrak.

1. ZATIA UNTZAGA-ALTUBE (19 KM)

Untzagan hasiko dugu ibilbidea (*Zati honetan kontuz ibiltzea komeni da, mastinak daude eta*). Herrira heltzeko errepidea hartu eta, herritik atera gabe, Iturribide kaleraino helduko gara; mendebaldera jo eta berehala kalea bide bihurtzen da. Bide hori segituko dugu mendialdera ateratzeko, Urburura iritsi arte. Iparraldera joko dugu, altuera hartuta. Hortik goitik jarraituko dugu, markarik gabeko gainaldetik. Gutxira xenda bat azalduko da, eta hari jarraiki La Barrerilla mendateraino ailegatuko gara. Errepidea igarota, Larrabaltzako bidea jarraituko dugu, norabidea aldatu barik. Mendebaldera biratuko, eta Beratzako punta izango dugu ikusgai. Bertara iritsi aurretik, ibilaldiaren lehendabiziko gerra-aztarnak daude, porlanezko bi bunkerrenak. Bunker horietatik lubakiak ateratzen dira, ia gailurreraino. Beratza-Askuren gailurra lubakiz zeharo inguratuta dago; bertan denbora luzean defentsan eta erasoan ibili zirelako seinale. Mendi-kaskoan gaudela, ipar-ekialdera begira, antena bat ikusiko dugu oso urrun ez

dagoen punta batean: Txibiarte. Horra abiatuko gara. Txibiarte jomuga dugula, mendiak berak egiten duen bira jarraituko dugu. Lubakiz mukurua dagoen zonalde batera sartuko gara, antena gertu dugula. Txibiarteko gainean gaude.

Mendi bueltetan sari egin dugu topo gerraren aztarnekin

Goiko lerroan beti, ekialdera joko dugu, goikolarreen mugetatik, goilautadaren mugetatik. Zelaien ertzetik lñabarragan eta Tellea iraganda, pagadi batean sartuko gara, eta Uzkiario goitik inguratu. San Martingo herrigunean gara. Ikusgarria, benetan, bertako bunkerra, eta bitxia, nola jarri duten haren gainean erpin geodesiko bat. Goiko bidea hartu, eta Oiardora abiatuko gara. Azkorra auzotik sartu, eta bertako Ibilbide Gastronomikoa hartuko dugu, Goiurira eramango gaituena. Elizaldetik sartuta, ur-jauzia

GURE ASKATASUNAREN ALDE BORROKATU ZIRENAK GOGOAN

Ibilbidean zehar ezinezkoa da ez imajinatzea nolako sufrimendua eta etsipena izan zen han eta hemen. Mundu hobe eta justuago baten alde borrokatu zirenak gogoratu nahi ditugu oraingo honetan, eta lerrootara ekarri:

Bakunineko anarkista gartsuak, Itxasalde eta Amayurreko nazionalistak eta Leandro Carroko komunistak; Beratz eta Txibiarte eskuratu zituztenak.

JSUkoak; Tomas Meabekoak (Stalin, Asturias, Rusia...); Perezagua batailoiko komunistak; UGTkoak; Karl Liebknechtekoak; EAJko Araba, Avellaneda, Irrintzi, Ibaizabal, Loyola eta Itxarkundiako gudari saiatuak (Ubiden, Gorbeian, Zestafan, Nafarraten, Oketan...); Mondragoneko dragoiak; Mendigoxaleak eta Batailoi Disziplinarioak ahaztu gabe.

Legutioko ofentsiban parte hartu zutenak, Albertian, Txabolapean, Pagotxikin, Jarindon, Maroton, Isuskitzan, Mendigainen: ANVko Olabarri eta Euzko-Indarrako gudari fierrak, CNTko Isaac Puente taldeko anarkista duinak, Azañakoak, UHPkoak -ausartak, benetan-.

Eta horiei guztiei lagundu zietenak, erreserbakoak: UGTko miliziano eskuzabalak, MAOCeko Larrañagako gerlari latzak, Sacco eta Vanzettiko anarkista gorriak, Gordexola eta Padurako gudari finak eta Rosa Luxemburgoko komunistak gogorak.



Esnaurizaganatik gertu pagoa iltzatutako baloneta.

ESALDI ESANGURATSUAK:

“Apúntate al requeté, que dan pan blanco.”


FRASE POPULAR DE LA ZONA.

En Murua ninguna puerta cierra bien. Todas se usaron de parapeto o de suelo en las trincheras y ninguna volvió a la casa de donde había salido.”

FRASE POPULAR DE LA ZONA.

“Los fusiles cubiertos de barro los usábamos como bastones.”

AGUIREGABIRIA, J. (2015): “LA BATALLA DE VILLARREAL DE ALAVA”. ED. BETA III MILENIO.



inguratu eta Berbita aldera joko dugu. Behatokia jaitsi gabe, argindarraren poste handiak jarraituko ditugu, eta, pare bat landa igarota, GR 282-an izango gara, Artzaintza Naturbidean. Hortik gutxira Izarra eskolaren albotik pasako gara, eta goi-goitik Oriol faxistaren txaletaren itzala sumatuko dugu. Aldapa jaisten hasi berri garela, Lamiojin putzua ikusiko dugu; ikaragarria, zinez. Jaisten segitu, eta, bihurtune itxi batzuk iraganda, igotzen hasiko gara. Altuera hartuta, paseo polita egingo dugu autopista azpitik pasatuz, eta pago eta ametzen artean tartetxoa egin ostean, etapa ia konturatu gabe amaituko dugu.

2. ZATIA ALTUBE-SARRIA (16 KM)

Altube mendatean hasiko gara. Errepidea gurutzatu eta ate txiki bat iraganda, xenda bat segituko dugu, GR282koa. Altuera hartzen hasiko gara, ekialdera jota. Bide lasaia da eta ez oso malkartsua. Tarte majo bat eginda, Gorbeia Natur-Parkearen lehenbiziko seinalearekin egingo dugu topo, jada lehenengo pagoak bistan ditugula. Une horretan ezkerretara jota, markatutako bidetara jarraitu eta pagadi eder baten barruan sartuko gara, Lekandai eta Karamuzabal aldean. Aldapa bat igo eta eskuinetara

sartuko gara; Astaiz mendira igoko gara oraingoan. Gerraren arrastoak nabariak dira, lubaki handi batek inguratzen baitu goiko gailurra, eta alboetan ikusiko ditugu hainbat adar, sigi-saga, lubaki txikiak, handiak, metrailetentzako habiak... Astaiz atzean lagata, lerrotik segitu, eta handik gutxira bidean gaude berriz. Tarte laburra igarota, kartel bat aurkituko dugu; hari kasu egin da, ezkerretara jo eta bost minutura Mendebaldeko Burbonaren postontzia ikusiko dugu. Gerrako bomba bat da; aproposa, non dagoen ikusita. Bide nagusira itzulita, aurrera egingo dugu, artez eta beldur barik, eta beste bi Burbonak kateatuko ditugu; zentrala eta ekialdekoa. Tontor horiek zapalduta, bidetara heldu eta altuera galtzen hasiko gara.

Mendebaldeko Burbonaren postontzia bomba bat da

Bailaran behera jarraituko dugu, Aldarro etxalderaino heldu arte. Ezkerretara egin, eta Parketxerako norabidea hartuko dugu, legarrezko bide batetik. Higas zubi erraldoia igarota, pista nagusitik jarraituko dugu, hegoalderantz. Zaldibartxoko putzua



Mendebaldeko Burbonaren postontzia.

albo batera utzi eta berehala helduko gara Gorbeia Parketxera. Aparkalekua ia erabat gurutzaturik, hego-muturrean gaudela, xenda estu bat sumatuko dugu, erreka aldera doana, eta burdinazko zubi urdinera eramango gaitu. Errekaz bestalde gaudela, ekarritako norabideari eutsiko diogu, Senda Vital izeneko bidean. Kilometro pare bat egin, eta Zubi Zuriaren ondoko aparkalekura iritsiko gara, Sarrian.

3. ZATIA SARRIA-MURUA (15 KM)

Aparkalekutik abiatuko gara. Senda Vital hartu eta, eskuinetik ateratzen den Markinarako bideari men eginda, zuzen segituko dugu bigarren gurutzaraino. Eskuinetara egin eta tinko ekingo diogu parean dugun aldapari. Pista zabala da, izeiak nonahi dituen. Legarda gaituta, eskuinetako bidea aukeratuko dugu lehenengo bide-gurutzean. Modu berean jokatu dugu hortik gutxira topatuko dugun bigarrenean, Amestutxa aldean, beti eskuinetara. Hortik aurrera basabidea apaltzen da. Erkametzek pagoei tokia uzten dieten tokian, Kantai terminoan, gailurretik nahiko gertu, errebuelta bat egin behar dugu ezkerretara, bide nagusiarekin bat egite aldera. Harri-metek erakutsiko digute segitu beharreko xenda. Segituan gaude Berretinen. Merezi du gaina azterteza: lubaki-mota guztietakoez zipriztinduta dago, bira osoa egiten diote kaskoari; leku estrategiko aparta izan zelako seinale. Norabideari eutsita, ipar-ekialderantz egingo dugu, Seperkuntzaraino. Talai honetatik zonaldeko punta guztiak ditugu ikusgai: Gorbeia, Arriorano, Araza... Mendigoxaleen lurrak, gerra garaian. Jaisten hasiko gara, markatutako bidetik, aurreko sakana saiheste aldera. Galdutako metroak irabazi eta gero, Zarartetik datorren bidearekin egingo dugu topo. Ezkerretara egin, eta Pagazuri aterpea bisitatzeko aprobetxatu dugu. Arabako lehen mendi-aterpea da, 1953koa. Jaisten jarraituko dugu, jada bide nagusian gaudela. Ezkerretara joko dugu gertuko bidegurutzean, eta, Sekelekularrekolanda igarota, Gonga mendia igoko dugu, ia ohartu gabe. Hortik

aurrera, jaitsi besterik ez dugu egin behar, erreka zabaldu-tako xendatik zein bide nagusitik. Baso bat aurrean dugula, eta aldapa samurtu denean, bi adarretan banatzen da bidea. Ezkerrekoa hartuko dugu, eta Muruako harrobietara eramango gaitu. Ederra bezain malkartsua da azken zati hau.

4. ZATIA MURUA-UBIDE (13 KM)

Muruako harrobietan hasiko dugu laugarren etapa. Gingia haitzapeko harrobi handia ezkerrean utzi, eta errepedeaz bestaldeko harrobi txikira abiatuko gara, eskuinetara jota. Pagadian sartzen den bidea hartu, eta ekialderantz pixkanaka-pixkanaka goia hartuz joango gara. Jira-bira batzuk eginda, beti gorantz, basotik aterako gara. Txilar, garo eta otaken artean, iskin egingo diogu Etxaguenerako bideari, eskuinean lagata, eta ezkerretara joko dugu, Umaran haitzak jomuga. Sigi-saga ibilita, haitzen arteko xenda jarraituko dugu, goiko larretaraino.

Gertuko zulo batean Batallón Disciplinario-k sinatutako harri zizelatua dago

Zelai zabalean gora jarraituko dugu, Oketa gaina bistartu arte. Azken zatia lubakien artean egingo dugu; izugarria da tontor horren defentsa nola antolatu zuten. Gailurrera iritsita, ohartuko gara behatoki apartan gaudela. Oketatik behera egingo dugu hegoalderantz; urruneko urtegiek adieraziko digute norabidea. Altuera galduta, ezkerretara egingo dugu, ekialderantz, eta pagadia zeharkatzen duen bidea hartuko dugu. Jaisten jarraituko dugu, bertako pagoak -meharrak eta lirainak- lagun ditugula. Bidegurutze batekin egingo dugu topo berehala. Siskiñun gaude; horren seinale argia pagamotzak dira -makurrak eta okerrak-, aspaldian hasi baitziren zonalde horretan egurra



Larragorriko lubakiak.



Suskitzako Via crucisa.



Albertiako ANVko monumentua.

horrela ustiatzen. Siskiñu gainera igo, eta, lubakiez gain, beste talaia pribilegiatu bat aurkituko dugu. Gertuko zulo batean harri zizelatua dago, gerra-garaien lekuko, Batallón Disciplinario-k sinatutako harria. Bide nagusitik atera, eta, ezkerretara, Harri-kurutzera hurbilduko gara. Joan-etorri laburra izango da, sar-

tu-atera azkarra bezain ikusgarria. Haitza behatoki paregabea da Arralde eta Eniabe begiztatzeko. Bide nagusira itzuli, eta jai-tsiera luzeari ekingo diogu Iñarraganeraino. Ate bat gaudituz, eta porlanezko pista batetik egingo dugu azken zatia, Ubideraino. Herriko plazan izango gara segituan.

Gailurra ANV-EAeko gudarien omenezko burdinazko estelak atontzen du

Bidera bueltatuko gara atzera ere, eta, Legutiorako norabidea hartuta, bide nagusia jarraituko dugu, behera eta behera. Zelai zabalen artean oso paseo atsegina egingo dugu Mendigainen, Etxebarriko baserrietara iritsi arte. Errepidera aterata, ezkerretara egin eta zubia igaroko dugu. Justiziamendi ezkerrean utzita, Legutiora sartuko gara. Ezkerretara hartu eta Aramaiorako bideari jarraituko diogu. Errota alboan lagata, eskuinetara egin eta metro gutxitara bidetik aterako gara, ur-biltegiatarara heldu arte. Hortik bide bat zabaltzen da, gorantz eta ekialderantz doana. Bideari eutsi eta zehar-zehar inguratuko dugu Albertia mendia, pagamotzak bidaide. Ezkerretara bira eginda, zuzen egingo diogu eraso gainari. Gailurra ANV-EAeko gudarien omenezko burdinazko estelak atontzen du. Ekialderantz jarraitu eta Larregoienera iritsiko gara. Zuzen segituko dugu Vitoria klubak 1958an eraikitako aterperaino. Berehala bat egingo du gurekin GR25ak, ia errepideraino. Errepidea iragan, eta Vasco-Navarro trenbidea hartuko dugu, Santiagolarran. Landaraino eramango gaitu, etaparen amaieraraino.

6. ZATIA LANDA-OTXANDIO (19 KM)

Landako Etxe-zuri tabernan hasiko dugu azken etapa. Pareko errepidea hartuta, ezkerretara joko dugu, erreketentzako via-cruciseko lehen gurutzera hurbiltzeko. Gurutze horiek erakutsiko digute bidea Isuskitzaraino. Mendi hori eskuratzeko saiakeretan hil zirenen omenez gailurrean aldare bat eraiki zuten; ondoan, bunker baten arrastoak sumatzen dira. Iparralderantz egingo dugu pagadi batean zehar, eta, norabidea aldatu gabe, bide zabala hartuko dugu Jarindoko magaleraino. Kaskoa inguratu eta, lubakien artetik, gainera iritsiko gara. Goi harritsua zeharkatu eta, iparralderantz beti, ondoko pinudira gerturatuko gara. Lerroari helduta, basoan sartuko gara. Izei ilunen babesean, ertzetik egingo dugu aldats behera, Albina urtegiko muturra aurkitu arte. Ezkerretatik inguratu, eta, Marixeka baselizari bazter eginda, erreka batekin egingo dugu topo. Eskuinetara egin eta errepidea gurutzatuko dugu. Metro gutxitara eskuinetara egin eta gorako xenda hartuko dugu, GR38arekin elkartu arte. Goraino segituko dugu, lubakiak albo bietara, Mirugain gailurrera iritsi arte. Atzera egingo dugu metro batzuk, eta PRa baliatuko dugu Inolara zuzen jaisteko. Gorrien Bidea hartuko dugu, ezkerretara. Berehala kanposantura iritsiko gara, eta ia konturatu gabe herrian sartu. Andikona enparantzara abiatuko gara, etaparen bukaerara. Europan zibilen aurkako lehen bonbardaketaren lekuko izan zen plaza hori. Faxistek, estatu-kolpetik lau egunera, eraso ankerra eta latza egin zuten bertan, eta 61 lagun erail zituzten, gehienak umeak eta zibilak.

ESKERRAK

Eskerrik asko ibilbide hau gurekin batera egin duten lagunei: Iñaki Lazkano, Aitor Iburgutxi, Aixa Jausoro, Fer Erralde, Joxe Lazkano, Garbiñe Iburgutxi, Celia Olabe, Itziar Elejalde, Imanol Miranda, Joxemi Reguero eta Goio Aramendia.

5. ZATIA UBIDE-LANDA (17 KM)

Ubideko plazan hasiko gara oinez, eta Madalena auzora egingo ditugu lehen urratsak. Barazarrerako errepidea gurutzatuta, bidea gogotsu hartu beharko dugu aldapa pikoari aurre egiteko. Goiko lepoan, eskuinetara hartu eta pagadi zoragarri batean aurrera egingo dugu. Bideak ezkerretara eta beherantz egiten du. Hor bidetik atera, eta, ezkerretara jota, pagaditik beti, gorako bidea hartuko dugu, muturretik zuzen. Landa batera aterata, izerdi pixka bat botaz, azken muinora igoko gara. Esnauritzagana zapaltzean konturatuko gara kaskoa erabat babestuta dagoela lubaki handi batez. Puntatik gertu, gerraren arrasto berezi bat dago: pago batean iltzatutako baioneta, bertan izandako borroken lekuko isila. Legutioko urtegiatarako norabidea hartuta, basabide bati helduko diogu, eta maldan behera jarraituko dugu. Aiaogana mendia ezkerretatik inguratu, eta, eskuinetara egiten duen bihurtunean, ezkerretatik aterako gara bidetik, Larragorrira jaiste aldera. Berehala topatuko dugu harrizko oroitarri bat; Bergara eta Antzuolako gudariak hil zituzten bertan, eta haien omenez egin zuten monumentu xume hori. Ondoan, lubakiak, zuloak eta hainbat aztarna daude.